

# ESKUALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO GUTUNA

**ALDIZKAKO VI. TXOSTENA**  
**(2017-2021)**

**NAFARROAKO GOBERNUA**

**Herritarrekiko Harremanetako Departamentua**

**Euskarabidea–Euskararen Nafar Institutua**



**Gobierno  
de Navarra**  **Nafarroako  
Gobernua**



# Aurkibidea

1. Sarrera eta arau-esparrua.....	2
3. Gobernuaren jarduna.....	9
4. Nafarroan Gutunaren III. zatia aplikatzeko xedapenak .....	16
4.1. 8. artikulua. Irakaskuntza.....	16
4.2. 9. artikulua. Justizia .....	23
4.3. 10. artikulua. Administrazioako agintaritzak eta zerbitzu publikoak .....	27
4.4. 11. artikulua. Hedabideak .....	30
4.5. 12. artikulua. Kultura-jarduerak eta -baliabideak .....	32
4.6. 13. artikulua. Ekonomia- eta gizarte-bizitza .....	34
4.7. 14. artikulua. Mugaz haraindiko trukeak .....	36

# 1. Sarrera eta arau-esparrua

Espainiak 1992an sinatu zuen Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, eta berretsi, berriz, 2001ean (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 222. zk., 2001/09/15ekoa). Gutun horretan, konpromisoa hartzen da eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzak babesteko eta gordetzeko tradizionalki mintzatzen diren tokietan —eta lurralde horien artean dago, besteak beste, Nafarroa—

Nafarroako Foru Komunitateak berezko bi hizkuntza ditu, euskara eta gaztelania, eta herritar guztiek dute biak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Gainera, gaztelania da ofiziala Foru Komunitateko lurralde osoan, eta euskara, berriz, eremu euskaldunean.

Espainiako Konstituzioak honako hau ezartzen du hirugarren artikuluan:

1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute jakin beharra eta erabiltzeko eskubidea.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izanen dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan beraien Estatutuei dagozkien eran.
3. Espainiako hizkuntza mota ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izanen da.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak hauxe ezartzen du bederatzigarren artikuluan —lege hura autonomia-estatuaren baliokidetzat hartzen da Espainiako Konstituzioaren hirugarren artikuluko 2. puntuan—:

1. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan.

Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta, Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen bidez garatzen da euskararen erabilera Nafarroako Foru Komunitatean, eta hiru hizkuntza-eremu ezartzen ditu (euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna). Berrikusgarria da eremu-banaketa hori. Ereku euskaldunean bakarrik du euskarak ofizialtasuna gaztelaniarekin batera. Bestalde, eremu mistoak biltzen du biztanle gehien, hantxe baitago Nafarroako hiriburua, Iruña.


Maila gailenagoko aurreko arauak ez bezala, Nafarroako Parlamentuak hirutan aldatu du Euskararen Legea:

- Otsailaren 23ko 2/2010 Foru Legeak hiru udalerrri gehiago bildu zituen eremu mistoan.

- Otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legeak aldatu egin zuen eremu ez-euskalduneari euskararen irakaskuntza aipatzen duen artikulua, eta zabaldu egin zituen eremu horretako ikasleen hizkuntza-eskubideak. Aditu Batzordeak modu positiboan balioetsi zuen arau hura 2019an.

- Ekainaren 27ko 9/2017 Foru Legeak aldaketa gehiago ekarri zituen: alde batetik, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen izenburua —gaztelaniazko bertsioan *vascuence* terminoaren ordez *euskera* jarrita—, eta, bestetik, 45 udalerriren zonifikazioa, udalerrri haiek biztanleen hizkuntza-eskubideak zabaltzeko egindako eskaerari erantzunez (zehazki, Atetz udalerrria eremu mistotik eremu euskaldunera igaro zen, eta eremu ez-euskalduneko 44 udalerrri eremu mistora). Era berean, Nafarroako toki-entitateek euskararen erabilera arautzeko ordenantzak onesteko aukera ere arautu zen, beren eskumenen barruan eta araudi gailenagoarekin kontraesaneari jarri gabe.

Grafiko honek hizkuntza-zonifikazioaren egungo egoera erakusten du (eremu euskalduna laranjaz, eremu mistoa berdez, eta eremu ez-euskalduna, azkenik, urdinez):



Nafarroako Foru Komunitateko egungo hizkuntza-zonifikazioa. Iturria: NDEA.

Euskararen Legea garatzeko beharrak eraginda onetsi zuen Nafarroako Gobernuak 103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan. Foru dekretu haren helburua da Gobernuaren eta toki-erakundeen komunikazio elebidunak antolatzea hizkuntza-eremuaren arabera, bai eta administrazio publikoetako langileen hizkuntza-gaitasuna hobetzea ere, arauan aurreikusitako komunikazioak egin ahal izateko. Hirugarren artikuluan jasotzen dira foru dekretuaren funtsezko helburuak:

- a) Eremu euskaldunean, ahalbidetzea bi hizkuntza ofizialetako edozein erabil daitezten lan-hizkuntza moduan Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan, bai eta herritarrei zerbitzua emateko ere.
- b) Eremu mistoan, gauzagarri egitea herritarrek duten eskubidea euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzeko Nafarroako administrazio publikoengana, beren erakunde publikoengana eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateengana, bai eta beharrezkoak diren tresnak zehaztea ere ahalbidetzeko euskara eta gaztelania erabil daitezten herritarrei zerbitzua emateko; betiere, eremu horretako udalerrien errealitate soziolinguistikoarekin bat.
- c) Eremu ez-euskaldunean, gauzagarri egitea herritarrek duten eskubidea euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzeko Nafarroako administrazio publikoengana, beren erakunde publikoengana eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateengana, bai eta hori lortzeko tresnak zehaztea ere, eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu zentraletan, funtsezko helburua da euskararen erabilera ahalbidetzea herritarrei zerbitzua emateko.

Foru dekretu hark arau-aurrerapen garrantzitsua ekarri bazuen ere Gutuna aplikatzeari dagokionez, zenbait sindikatuk —Nafarroako UGT, Administrazio Langileen Sindikatua, Afapna, Nafarroako Medikuen Sindikatua eta Satse Erizainen Sindikatua— administrazioarekiko hiru auzi-errekurtso aurkeztu zituzten, zeinak partzialki baietsi baitzituen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako epaietan kontsulta daitekeenez:

- 216/2019 Epaiak: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/testua/2019/237/23>
- 217/2019 Epaiak: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/testua/2019/237/22>
- 218/2019 Epaiak: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/testua/2019/237/24>

Epai haien ondotik, zeinetan ez baita aipatzen Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, indarrean jarraitzen du 103/2017 Foru Dekretuak, baina araua modu koherentean aplikatzea eragozten duten aldaketekin. Horrenbestez, zuzendu egin behar dira auzi horiek, lege-hutsuneak saihesteko. Dekretuaren 41 artikuluetatik hiru osorik balio gabetu ziren, eta beste bi, berriz, partzialki. Balio gabetutako artikuluek edo puntuek, batetik, euskara eremu mistoan, eremu ez-euskaldunean eta Foru Administrazioaren zerbitzu zentraletan merezimendu gisa balioesteari egiten diote erreferentzia, eta, bestetik, komunikazio eta errotulazio elebidunei. Dekretuaren arabera, zerbitzu zentralizat hartzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuetatik herritar guztiendako arreta ematen dutenak, non dauden kontuan hartu gabe. Euskara merezimendu gisa balioesteari dagokionez, deigarria da atzerriko hizkuntzak Nafarroa osoan balioetsi ahal izatea, eta eremu mistoan eta ez-euskaldunean, aldiz, euskara

baliogabetu izana (egoera horrek hala jarraitzen du gaur arte). Esteka honetan kontsultatu daiteke testu bateratua: <https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5939526>

Bestalde, izan da hizkuntza-politikan eragin transbertsala izan duen arau-aldaketarik ere. Hauek, adibidez:

- 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa, eta, zehazki, haren IV. titulua, administrazioaren funtzionamendu elektronikoa buruzkoa, zeinak hauxe ezartzen baitu:

69. artikulua. Nafarroako Gobernuaren web ataria.

4. Nafarroako Gobernuaren web ataria gaztelaniaz eta euskaraz egonen da. Era berean, interes orokorrekoa dela jotzen bada, beste hizkuntza batzuetan ere emanen da informazioa.

- 17/2017 Foru Legea, abenduaren 27koa, irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duena. Foru lege hark ezartzen duenaren arabera, espezialitatea zein hizkuntzatan emanen den edo zein hizkuntza-espezialitate den, hizkuntza horretan eginen dira hautapropa guztiak.

- 5/2018 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, irizpideak ezartzen dituena Nafarroako biziguneeen izenak erabiltzeko eta haiek grafikoki adierazteko. Foru dekretu haren bidez, Euskararen Legeak ezarritakoa garatzen da, Foru Komunitateko toponimoei dagokienez.

- 8/2020 Foru Dekretua, urtarrilaren 12koa, Nafarroako Gobernuaren ikur ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretua aldatzen duena. Haren bidez, hizkuntzen ordena bakarrik aldatu zuen Gobernuaren logotipoan.

Gobernuari dagokionez, Nafarroako Gobernurako 2015-2019 legegintzaldirako Akordio Programatikoak azpimarratzen du hizkuntza politika berri baten beharra, herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatuko dituena eta hizkuntza-normalizazioan aitzina eginen duena, printzipio hauetan oinarriturik:

- Zeharkakoa, politika publiko guztietan eta gizarte-arloan eragina izanen duena.
- Progresiboa eta Nafarroako egoera soziolinguistiko bakoitzari egokituia.
- Eraginkorra, ongi planifikatua eta ebaluatua.
- Parte-hartzea bultzatzen duena, herritarren eta euskara sustatzeko lanean ari diren gizarte-eragileen lankidetzara bilatzen duena.
- Hizkuntza-eskubideak bermatzeko bidean aurrera egiteko arauzko babes egokia duena.
- Euskarari prestigioa ematen diona gizartean.
- Herritarren askatasuna eta borondatezkotasuna errespetatzen dituena.

Alde horretatik, 2015-2019 legegintzaldirako Nafarroako Gobernuaren akordio programatikoak konpromiso hau jasotzen du: «Euskararen egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua egitea eta Euskararen Kontseiluak plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkor bat diseinatzea, Gobernuaren hizkuntza-politikaren oinarria finkatzeko».

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoak egin eta koordinatu zuen Euskararen 2016-2019 aldirako I. Plan Estrategikoa, Nafarroako Gobernuak 2017ko urtarrilaren 25ean onetsia, eta, Nafarroako euskararen diagnostiko osoa egin ondotik, 190 ekintza diseinatu zituen, zazpi ardatz estrategikotan antolatuturik:

1. Gizarte-erabilera.
2. Hiztun berriak.
3. Zerbitzu publikoak.
4. Prestigioa eta erakargarritasuna.
5. Ekonomia-eragilea.
6. Hizkuntza-esparrua.
7. Euskarabidearen barne-kudeaketa,

2020an, Euskararen I. Plan Estrategikoaren ebaluazio-txostena argitaratu zen, emaitza onekin argitaratu ere. Hain justu, esteka honetan eskuratzen ahal da:

[https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/euskararen\\_i\\_plan\\_estrategikoaren\\_ebaluazioa.pdf](https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/euskararen_i_plan_estrategikoaren_ebaluazioa.pdf)

2019-2023 legegintzaldirako Nafarroako Gobernurako Akordio Programatikoak, besteak beste, Euskararen II. Plan Estrategikoa aurreikusten du, eta, hala, lanean jarraituko da Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuneko xedapenekin bat datorren hizkuntza-politika lortzeko bidean. Bigarren plan horrek 2020-2027 arteko aldia aurreikusten du, eta aurrekoaren egiturari eusten dio. Era berean, egin du parte hartzeko prozesua ere, eta, txosten hau idatzi denean, onesteke dago. Esteka honetan kontsultatu daiteke planaren prozesua:

<https://participa.navarra.es/processes/ii-plan-estrategico-del-euskera-2020-2027?locale=eu>

## 2. Euskararen adierazle soziolinguistikoaren bilakaera Nafarroan


2018an, Nafarroako Gobernuaren bi erakunde autonomok, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eta Nafarroako Estatistika Institutuak, Nafarroako 2018ko Datu Soziolinguistikoak izeneko azterlana egin zuten, Gizartearen eta Bizi Baldintzen Inkesta izeneko estatistika-eragiketaren esparruan. Esteka honetan kontsulta daiteke: [https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/azterketa\\_soziolinguistikoa\\_2018.pdf](https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/azterketa_soziolinguistikoa_2018.pdf)

Nafarroako Foru Komunitateko egoera soziolinguistikoan finkaturik, honela laburbiltzen ahal dira azterlanetik ateratzen diren datuak:

- 2018an, 16 urtetik gorako 537.229 biztanleetatik % 14,1 elebidunak ziren, % 8 elebidun pasiboak eta % 77,9 erdaldun elebakarrak. Biztanleria elebidunak ugaritzen jarraitzen du, eta gaur egun 75.810 pertsona dira (1991n, 40.000 erroldatu ziren elebidun gisa).
- Eremu euskaldunean ageri da euskaldunen ehuneko handiena: % 60,8. Eremu mistoan, berriz, % 12,4koa da elebidunen ehunekoa. Eremu ez-euskaldunean ageri da euskaldunen ehuneko txikiena, % 2,6.
- Elebitasun-ehunekorik handiena biztanle gazteen artean ikusi da: 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 24,9 elebidunak dira. Hala, bikoiztu eta gainditu egin da 1991n erregistraturiko ehunekoa (% 10).

Euskararen ezagutzan errealitate desberdinak ageri dira hizkuntza-eremuen arabera. Hurrengo taulan ikus daitekeenez, euskararen ezagutzaren bilakaerak egonkor jarraitzen du eremu euskaldunean, eta eremu mistoan eta ez-euskaldunean, berriz, etengabe egin du gora euskaldunen kopuruak, erritmo desberdinetan bada ere:

Euskararen ezagutzaren bilakaera eremu linguistikoaren arabera, 1991-2018 (euskaldunen ehunekoa)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 eta GBBi / ESyCV, 2018.

Iturria: Nafarroako Datu Soziolinguistikoak, 2018



Euskararen ezagutzari buruzko datuak biztanleriaren adinaren arabera aztertzen baditugu, datu orokorrek adierazten digute goranzko joera piramidal argia nabari dela adin-tarteen arabera. Hori kontuan izanik, pentsatzekoa da gorakada naturala izanen dela heldu diren urteetan:



Iturria: GBBi / ESyCV, 2018.

adinaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)

Iturria: Nafarroako Datu Soziolinguistikoak, 2018

Bestalde, Soziolinguistika Klusterrak Hizkuntzen Erabileraren VIII. Kale Neurketa egin zuen 2021ean, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Neurketa horretan ikusten denez, euskararen kale-erabilerak nabarmen egin du gora Nafarroan 2011 eta 2016 artean, eta 2021ean, berriz, gelditu egin da erabiltzaile-kopurua, besteak beste COVID-19ak eragindako pandemiak kale-interakzioetan izaniko inpaktuagatik, taula honetan ikusten ahal denez:

Erabilera erregistratuaren bilakaera, adinaren arabera. Nafarroa

Erabileraren kale-neurketa	Erabilera Nafarroan, orotara	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2011	5,7	7,5	5,6	5,4	3,3
2016	6,7	8,6	6,6	6,6	3,9
2021	5,9	8,9	4,8	5,8	3,2

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Euskararen Erabileraren VIII. Kale Neurketak Nafarroako 29 udalerrri bildu ditu. Laginean, guztira, 29.138 elkarrizketa egin dira eta 83.225 hiztun inguru erregistratu dira. Beraz, ikerketa zabala izan da, eskuratutako datuen indarra bermatzen duena. Laginaren errorea  $\pm 0,4$  da, eta konfiantza-maila, berriz, % 95ekoa. Azterlana eskuratzeko esteka: <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/medicion-del-uso-de-las-lenguas-en-la-calle-euskal-herria-2021/>

### 3. Gobernuaren jarduna

Atal honetan, azaltzen da zer-nola antolatzen duen Nafarroako Gobernuak hizkuntza-politika eta zer baliabide bideratzen dituen. Horretaz gainera, jasorik daude euskararen edo eskualdeetako edo eremu urriko beste hizkuntza batzuen inguruan dituen lankidetzak-hitzarmenak eta -akordioak ere.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomo bat da, eta Nafarroako Foru Komunitatean euskara babesteko politikak diseinatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen da. [Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuak](#) nabarmen zabaldu zuen erakundearen egitura, eta lehen aldiz sortu zuen euskara administrazio publikoetan garatzera bideratutako zerbitzu bat, zeinaren eginkizun nagusia baita Foru Komunitateko administrazio publikoetan beharrezko hizkuntza-plangintza bat abian jartzea, Nafarroako Gobernu departamentuetatik hasita.

Nafarroako Gobernu departamentu bakoitzak lehen aldiz onetsi zuen 2020-2022 aldirako Hizkuntza Plana ([esteka honetan](#) ikusten ahal da planaren adibide bat). Hizkuntza Plan horrek egoeraren diagnostiko bat egitea izan zuen ardatz, helburu hauek kontuan harturik:

1. Beharrezko hizkuntza-nahitaezkotasuna ezartzea lehentasunezko unitate organikoetan.
2. Euskarazko prestakuntza eskaintzea lehentasunezko unitate organikoetara esleituriko departamentuko langileei.
3. Beharrezko neurriak hartzea euskaraz artatzeko hala eskatzen duten pertsonak.
4. Herritarrei ele biko informazio idatzia eskaintzea (digitala eta paperekoa).
5. Errotulazioa eta informazio-elementuak bi hizkuntzetan, herritarrek artatzeko gune fisikoetan (bulegoak, harreraguneak...): hizkuntza-paisaia.
6. Hizkuntza-irizpideak ezartzea zerbitzu publikoak adjudikatzeko orduan.

Behar diren baliabideen hornidurari dagokionez, norabidea Europako Kontseiluak egindako gomendioen ildokoa da jadanik. Adu Batzordeak ohartarazi zuen Euskarabidearen aurrekontu orokorrak nabarmen egin zuela behera azken urteetan, eta gerta zitekeela horrek eragin negatiboa izatea Nafarroan euskara babesteari eta sustatzeari dagokionez. Alabaina, joera hori aldatu egin zen 2015-2019 legegintzaldian, eta 2019-2023 legealdian ere hobekuntza-bide argian jarraitu du, taula honetan ikusten ahal denez:

Euskarabidearen urteko aurrekontuak

Urtea	Aurrekontua	Nafarroako Gobernuko aurrekontuari dagokion ehunekoa
2017	6.224.644	% 0,15
2018	6.993.445	% 0,16
2019	7.390.277	% 0,17
2020	8.372.493	% 0,18
2021	9.242.807	% 0,19

Iturria: Euskarabidea.

Euskarabidearen estatutuen ildotik, 24. artikuluan arautzen da Euskararen Nafar Kontseilua, Nafarroako Gobernuari euskararen plangintzan eta sustapenean aholku emateko eta proposamenak egiteko organoa. Hizkuntzaren garapenean diharduten gizarte-sektoreetako ordezkariak eta Nafarroako Parlamentuko bost kidek osatua da Euskararen Nafar Kontseilua.

Bestalde, Euskarabideak hitzarmen eta akordio hauek dauzka izenpeturik euskara edo eskualdeetako edo eremu urriko beste hizkuntza batzuk babesten diharduten erakundeekin — Nafarroakoak zein Nafarroatik kanpokoak—:

- Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena:

Hitzarmenaren helburua da Euskaltzaindiarekiko lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzea — aginduzko txostenetarako eta aholkularitzarako— eta sinatzaileek beren gain hartzen dituzten konpromisoen esparrua arautzea, Euskaltzaindiak, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, duen jarduna ahalbidetze aldera.

- Euskarabidearen eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmena:

Hitzarmenaren helburua da Eusko Ikaskuntzarekiko lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzea eta sinatzaileek beren gain hartzen dituzten konpromisoen esparrua arautzea, Eusko Ikaskuntzak, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, duen jarduna ahalbidetze aldera, baita izaera orokorrekoak ere, erakunde horrek egoki funtzionatzeko.

- Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea:

[Euroeskualdea](#) lurraldeen arteko lankidetzarako Europako talde bat da, Europar Batasunak aurreikusten duen tresna bat mugaz eta nazioz haraindiko eta eskualdeen arteko lankidetzarako. Europar Batasunak kofinantzuriko proiektuak egitaritzen ditu, baita eskualdeetako agintariek sustaturiko ekintzak ere.

Akitania Berriak eta Euskadik sortu zuten 2011ko abenduaren 12an, lurraldeen eginkizun ekonomiko eta soziala indartzeko, eta Nafarroak 2017an bat egin zuen. Sortu zenetik, euroeskualdeak 136 proiektu finantzatu ditu, 3,9 milioi euroko zenbatekoarekin, kultura- eta hizkuntza-trukeak barnean harturik, eta Europako zazpi proiektu kudeatu ditu enpleguaren, prestakuntzaren, garraioaren eta ekonomiaren arloetan. Haren eginahalak lau sari lortu ditu, gainera, Europan.

Euroeskualdearen 2021-2027 aldirako Plan Estrategikoak hiru lurraldeen arteko kohesioan sakontzea eta herritarren arteko harremanak sendotzea du helburu. Bost ardatz estrategikoren inguruan egituratzen da, eta 68 jarduera aurreikusten ditu orotara. Plan hori prestatzeko, euroeskualdeko ahalik eta eragile gehien inplikatzeko sustatu da, hala nola herritarrak eta lurralde-administrazioetako eragile erabakigarriak.

Hauexek dira planaren bost ardatz estrategikoak: euroeskualdeko herritarrak; garapen adimenduna, lehiakorra, inklusiboa eta jasangarria; lurraldearen jasangarritasuna eta kohesioa; mugaz haraindiko gobernantza; eta euroeskualdearen kudeaketa aurreratua. Ardatz horien barneko jarduera zehatzen bidez, osagarritasunak eta indarguneak aprobetxatzen saiatuko dira, bai eta sinergiak sortzen ere, emaitza hobek sortzen laguntzeko.

- Euskal Autonomia Erkidegoarekiko harremanak:

2021ean berritu zen [Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Lankidetzaren Protokolo Orokorra](#), eta zabaldu eta eguneratu egiten du bi erkidegoek 2016an sinatutakoa. Hala, bi erkidegoek lankidetzan jarduteko oinarriak ezartzen ditu 29 arlotarako, bost eremutan antolatuz: ekonomia, gizarte eta kultura, administratiboa, azpiegiturak eta teknologia.

Euskara babesteari dagokionez (gizartearen arloan), ekintza hauek zehatzen dira:

- Euskarazko irakaskuntza garatzea, ikasleen mugikortasuna eta trukeak sustatuz; ikasleak lurralde batetik bestera mugitzeko programak bultzatzea.
- Euskara helduei irakastea: curriculumak garatzea; materialak egin eta zabaltzea, lurralde bakoitzaren premiak eta berezitasunak kontuan hartuta; irakasleen prestakuntza espezifikoa; dauden praktikei buruzko informazioa trukatzeko, hala nola dirulaguntzen programak eta ikasleen eta prestakuntza-zentroen jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak.

- Euskarazko hizkuntza-gaitasunaren maila ebaluatzeko eta egiaztatzeko probak eta sistemak diseinatzea, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan oinarrituta, eta bi aldeek emandako ziurtagiriak elkarri aitortzeko helburuarekin.
- Bi lurraldeetako errealitate soziolinguistikoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ikerketak eta azterlanak.
- Euskararen erabilera oro har sustatzeko, bultzatzeko eta sentsibilizatzeko programak, eta berariazko ekintzak hainbat arlotan, hala nola aisialdian, kirolean, ingurune digitalean, eremu sozioekonomikoan edo komunikabideetan.
- Hizkuntza-corpusaren arloko lankidetzak; horretarako, arlo horrekin lotutako beharrei erantzuten saiatuko da: itzulpen-memoriak, terminologia-bankuak, lexikografia, etab.
- Euskararen nazioarteko zabalkunderako programak bultzatzea, proiektuak aurkeztea, Europako finantzaketa-bideetara, aukeren arabera, eta hizkuntza-politika integratzea POCTEFaren etorkizuneko programa operatiboetan.

- Euskara sustatzeko berariazko lankidetzak-hitzarmena (Hiruko Ituna), Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuko Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean:

Euskara babesteko hizkuntza-politika komunei buruzko berariazko hitzarmen bat da, 2017ko uztailaren 3an Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak, Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskarabideak sinatua —eta urtero berritua—. Hitzarmenak elkarrekiko lankidetzaren hautua egiten du bikoiztasunak eta alferrikako gastuak saihesteko, eta, hala, ahalik eta efizientziarik handiena lortzeko. Orobat, areagotu egiten ditu Akitania-Euskadi-Nafarroako Euroeskualdeak Nafarroari eskaintzen dizkion lankidetzak-harremanak.

**Helduendako euskararen hezkuntza eta irakaskuntzari dagokionez**, besteak beste ekimen hauek sustatuko dira: irakasleen eta ikasleen mugikortasuna eta trukatzekoak, helduendako irakaskuntzaren curriculumaren garapena eta horretan aritzen diren irakasleen berariazko prestakuntza. Hiru lurraldeek hizkuntza-gaitasun mailak ebaluatzeko probak eta sistemak ere prestatuko dituzte. Horretaz gainera, hiru lurraldeetan balioko dute bakoitzean emaniko tituluek.

Bestalde, eta lurralde bakoitzeko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta, elkarrekin partekatuko dituzte **euskara** aisialdian, ingurune digitalean eta lan munduan **sustatzeko** ezagutzak eta tresnak. Hitzarmenak **euskararen eta gogoeta-eremuen sustapena** ere biltzen du, hiru alderdiek koordinatutako sustapen-programen bidez, eta gogoeta egiteko eta ezagutzak partekatzeko eremuak sortzen ditu.

Hitzarmenaren ondorioz, hiru alderdiak elkarrekin lankidetzan arituko dira, orobat, egindako **ikerketak soziolinguistiko**en barnean lortutako eta bildutako datuak bateratzen. Aldi berean, ikerketarako beste bide batzuk proposatuko dituzte, euskararen egoera zein den jakiteko. Azkenik, lankidetzak estua aurreikusten du hitzarmenak, **Europako finantzabideek** eta POCTEFA programa berriek hizkuntza-politikaren erronkak kontuan har ditzaten.

- Euskararen Adierazle Sistema (EAS).

Euskararen Adierazle Sistemak (EAS) euskararen egoera sozialari buruzko 44 adierazle biltzen ditu, eta hizkuntza gizarteko eremu guztietan zenbateraino erroturik dagoen zehatz-mehatz erakusteko tresna izan nahi du, bai une jakin bateko datuei dagokienez, bai denboran zehar izaniko bilakaerari begira. Sistema horri esker, denbora errealean ezagutzen ahalko da euskararen errealitatea, ahalik eta zehaztasun handienarekin, gainera. Datuak lau hizkuntzatan argitaratuko dira (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez) eta Nafarroako Gobernuaren webgunean kontsultatzen ahalko dira. Datuak modu planifikatu, sistematiko eta jarraituan emanen dira, eta halaxe eguneratuko dira adierazleak berak ere.

Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Erakunde Publikoak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek sustatzen dute Euskararen Adierazle Sistema. Era berean, Europako Batzordeak finantzatzen du proiektua, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF) bidez. Proiektu hau sarturik dago Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Europako programaren esparruan (POCTEFA), eta xedea du adierazle-sistema eraginkor, malgu eta fidagarri bat eraikitzea, besteak beste modu sistematikoan bildu ahal izateko euskararen ezagutzari, erabilerari eta haren inguruko jarrerari buruzko datuak.

- Hizkuntza-politikaren arloko lankidetzaproto-koloa:

2017az geroztik, Nafarroako Gobernuak bat egin du Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateak eta Galiziako Xuntak 2007tik abian jarritako hizkuntza-politikaren arloko lankidetzaproto-koloarekin. Balear Uharteetako Gobernuak eta Valentziako Generalitateak ere bat egin dute hizkuntza-politikaren arloan. Protokoloa sinatu duten alderdiek adierazi dute esparru orokor bat eta metodologia bat finkatu nahi dituztela hizkuntza-politikaren arloan lankidetzan jarduteko. Hori horrela, hizkuntza propioa eta koofiziala duten autonomia-erkidego guztien lehen lankidetzaproto-koloa da, haietako bakoitzaren autonomia-estatutuan ezarritakoaren arabera.

Guztiek ere berriaz trukutzen dute metodologiei, lan-prozesuei, irizpideei eta jardunbide egokiei buruzko informazioa eremu hauetan:

- Soziolinguistika.
- Argitalpen elektronikoak.
- Hizkuntza-eskubideak.
- Hizkuntza-planak.
- Programen ebaluazioa.
- Terminologia.

Horretaz gainera, estatuko eta EBko administrazioen esparruan, estatuak eta Europar Batasunak araugintza-jarduna eta neurriak har ditzaten sustatuko dute, gaztelaniaz bestelako hizkuntza ofizialen erabilera ahalbidetzeko Kongresuan eta Senatuan, Justizia Administrazioan edo estatuko

sozietateetan, eta neurriak sustatuko dituzte, orobat, estatuko erakundeek hizkuntza koofizialak normalizatzearen aldeko politika aktiboak bultzatzen.

- Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarea.

[Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen](#) xedea da Europako herritarrak eta erakundeak sentsibilizatzea hizkuntza aniztasunak duen garrantziari buruz. Nafarroako Gobernua eskubide osoko kidea da sare horretan. Besteak beste, herrialde hauek parte hartzen dute: Britainia (Frantzia), Katalunia, Korsika (Frantzia), Estonia, Finlandia, Frisia (Herbehereak), Gales (Erresuma Batua), Galizia, Irlanda eta Euskal Autonomia Erkidegoa. Halaber, sareko partaide dira esparru horretan lanean ari diren hogeitabi elkarte eta gobernu kanpoko erakunde ere.

Hau da sareko kideek onetsitako etorkizunerako ikuspegia:

Zergatik babestu behar da hizkuntza-aniztasuna Europan?

1. Europar Batasunak eleaniztasunaren aldeko politika inklusiboa bereganatzeko, Europan hitz egiten diren mintzaira guztiek beren lekua izan dezaten.

Europar Batasunaren/erakundearen eginkizuna izan beharko luke:

- Europako hizkuntzei laguntza eta ikusgarritasuna ematea, ahalik eta aintzateste handienaren bidez.
- Eleaniztasunaren ekitatezko ikuspegia hartzea, Europako hizkuntza guztiek EBren proiektu eta ekimenetan parte hartu ahal izateko.

2. Hizkuntzek eginkizun erabakigarria izateko gizarte-kohesiorako, garapen pertsonal eta ekonomikorako eta mugikortasun profesionalerako.

Europar Batasunaren/erakundearen eginkizuna izan beharko luke:

- Hizkuntza guztiak sartzea toki, eskualde, nazio eta nazioarte mailako ekonomietan hazkundera eta lehiakortasuna pizteko eta enplegua sortzeko Europar Batasunaren estrategian.
- Mugikortasun-mota desberdinetarako hizkuntzak sustatzea: nazioarteko mugikortasunerako, zeinean *lingua franca* eta nazioarteko hizkuntzek eginkizun erabakigarria izaten ahal duten, eta eskualdeko edo mugaz gaindiko mugikortasunerako, zeinean eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzek balio erantsi handia izaten ahal duten.
- Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatzea esparru sozioekonomikoan eta sektore pribatuan, eta, zehazki, kontsumoaren alorrean.

3. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) erabiltzea hizkuntzen irakaskuntzaren alde eta horiek guztiak sustatzea eta indartzea.

Europar Batasunaren/erakundearen eginkizuna izan beharko luke:

- Bermatzea hizkuntza-komunitate guztiek, edozein izanik ere haien hiztun-kopurua, parte hartzen dutela IKTekin loturiko Europako ekimenetan.

4. Eskualdeetako, eremu urriko edo galtzeko zorian dauden hizkuntzei, hau da, Europako hizkuntza ahulenei laguntza ematea.

Europar Batasunaren/erakundearen eginkizuna izan beharko luke:

- Estatu kideak gonbidatzea ofizialtasun estatusa, sostengua eta bultzada eman diezaieten Europako eskualdeetako hizkuntzei, eremu urrikoei edo desagertzeko arriskuan daudenei.
- Estatu kideren bateko lurraldearen zati batean ofizialtasuna duten hizkuntzek Europar Batasuneko hizkuntza ofizial gisa aitortzeko aukera bultzatzea, ahal den neurrian eta betiere hala eskatuz gero.
- Europako eskualdeetako hizkuntzen, eremu urrikoen edo desagertzeko arriskuan daudenen aldeko ikusgaitasun- eta sostengu-neurriak hartzea, eta horiek kontinenteko hazkunde eta oparotasunaren kontakizun berrian sartzea.
- Europako Kontseiluarekin orpoz orpo lan egitea Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren eragina handitzeko eta EBko estatu guztiek Gutuna sinatzen eta berresten dutela segurtatzeko, beren jurisdikzioetan xedatutakoari jarraikiz.
- Sostengu ematea hizkuntza-eskubideak Europako Oinarrizko Eskubideen Gutunean sartzeari.



## 4. Nafarroan Gutunaren III. zatia aplikatzeko xedapenak

### 4.1. 8. artikulua. Irakaskuntza

Sarrera gisa, Nafarroako hezkuntza-sistemak hizkuntza-eredu hauek eskaintzen ditu:

A eredia: irakaskuntza gaztelaniaz eta euskara irakasgai.


B eredia: euskarazko irakaskuntza, eta gaztelania irakasgai, baita irakas-hizkuntza ere irakasgai batean edo gehiagotan, ikasketen, zikloaren edo etaparen arabera..

D eredia: irakaskuntza euskaraz, gaztelania irakasgaia izan ezik.

G eredia: irakaskuntza gaztelaniaz, euskarazko edo euskararen irakaskuntzarik gabe.

Gainera, erdi-murgilketako ikasketa intentsiboko programak eskaintzen dira ingelesez, frantsesez edo alemanez, eta horrek zaildu egiten du euskaraz behar bezala murgiltzea.

Hauxe da Nafarroako eskolatzeko datu totalen bilakaera, 3-18 urteko adin-tartean eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza modalitate guztietan, hizkuntza-ereduen arabera:




Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa

Iturria: Hezkuntza Departamentua.

Ikusten ahal dugunez, lau hizkuntza-ereduek egonkor jarraitzen dute, eta A ereduak joera negatibo txiki bat du. Datuek erakusten dutenez, Hezkuntza Departamentuak ez du egin jardura

espezifikorik euskarazko eredueta eskolatzeko-maila handitzeko edo euskara irakasgai gisa txertatzeko.

Jarraian, eskolatzeko-datuak agertzen dira, atzerriko hizkuntzen programak barne. Nabaria da programa horien goranzko joera argia, eta, zehazki, ingelesarena gaztelaniazko eredueta (laranjaz); euskarazko ereduak (urdin ilunez), aldiz, egonkor jarraitzen dute:



Aurrez adierazi bezala, 2015eko martxoaren 10ean, Nafarroako Foru Komunitateko Aldizkari Ofizialak argitara eman zuen 4/2015 Foru Legea, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea aldatzen duena. Ereku ez-euskaldunean, euskarazko irakaskuntzari ereku mistokoaren antzeko estatusa eman dio aldatetak. Praktikan, aukera ematen du D eredu sartzeko ereku ez-euskalduneko eskola publikoetan.

D eredu eskaera aski izanez gero ezarriko da ereku ez-euskalduneko ikastetxe publikoetan. Finkatuta dagoenaren arabera, horretarako zortzi aurrematrikula-eskaera izan behar da Haur Hezkuntzan (3-6 urte) eta, kopuru horretara iritsi ezean, Hezkuntza Departamentuak erabakiko du talde bat irekitzea ikastetxe jakin batean, eta hara joanen dira “geografikoki hurbil” dauden beste eskatzaile batzuk —laguntzak izanen dituzte garraio eta jantokirako—. Hala ere, dakigula behintzat familiei ez zaie ematen informazio egokirik eta modu sistematizatuan euskarazko eredueta matrikulatzeko aukerei buruz.

### Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte)

Nafarroan, 2020-2021 ikasturtean, Haur Hezkuntzako 154 ikastetxetan (101 publiko eta 53 pribatu) eman ziren lehen zikloko irakaskuntzak, eta horietako 44k euskaraz ematen zituen ikasgaiak, gehienak ereku euskaldunean, taula honetan ikusten ahal denez:

Nafarroako Haur Hezkuntzako ikastetxeak, eskaintzaren eta hizkuntza-eremuen arabera (2021)

Hizkuntza-eskaintza	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez-euskalduna	Guztira
<b>Gaztelaniaz</b>	0	62	34	96
<b>Gaztelaniaz eta ingelesez</b>	0	9	5	14
<b>Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez</b>	0	1	0	1
<b>Euskaraz</b>	16	26	1	43

Iturria: Hezkuntza Departamentua.

## Lanbide Heziketa

Lanbide Heziketari loturiko heziketa-zikloen espezializazioak eta ikasketa horiek etengabe berritzeak zaildu egiten dute edozein hizkuntzatan eskaintza egonkorra edukitzea. Zailtasunak zailtasun, halere, etengabe handitu da euskarazko zikloen eskaintza azken urteotan (taulan ikus daitekeen bezala), eta, horrenbestez, betetzen dira Gutuneko manuak.

Lanbide Heziketako zikloen eskaintza euskaraz, 2017-2022 aldian.

Maila	Zikloa	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Oinarrizko LH	Metalezko elementuen fabrikazioa	1	1	1	1	1	1
Oinarrizko LH	Bulegoko Informatika		1	1	1	1	1
Erdi mailako zikloa	Mendekotasuna duten Pertsonentzako Arreta		1	1	1	1	1
Erdi mailako zikloa	Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak					1	1
Erdi mailako zikloa	Ibilgailu Automobilen Elektromekanika	1	1	1	1	1	1
Erdi mailako zikloa	Nekazaritza Ekologikoko Ekoizpena	1	1	1	1	1	1
Erdi mailako zikloa	Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak		1	1	1	1	1
Erdi mailako zikloa	Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak			1	1	1	1
Erdi mailako zikloa	Mekanizazioa				1	1	1
Erdi mailako zikloa	Natur inguruneko eta aisialdiko gidaria						1
Goi mailako zikloa	Gizarte Integrazioa		1	1	1	1	1
Goi mailako zikloa	Automatizazioa eta Robotika Industriala	1	1	1	1	1	1
Goi mailako zikloa	Egokitzapen fisikoa					1	1
Goi mailako zikloa	Abeltzaintza eta Abere-Osasanari Laguntza						1
Goi mailako zikloa	Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntza		1	1	1	1	1
<b>GUZTIRA</b>		<b>4</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>13</b>	<b>15</b>

Eskaintako ziklo guztiekiko ehunekoa	% 4,2	% 8,8	% 9,8	% 10,6	% 10,6	% 12
Eskaintako zikloak guztira	95	102	102	103	122	125

Iturria: Hezkuntza Departamentua.

## Unibertsitate-ikasketak

Nafarroako Gobernuak, Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, lanean dihardu Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, euskarazko prestakuntza-eskaintza areagotzeko. Horri dagokionez, bai 2018/2021 aldirako Finantzaketa Hitzarmenean, bai 2022/2024 aldirakoan, euskarazko irakaskuntza da jardueraren araberako finantzaketa-adierazleetako bat.

Egungo hitzarmenaren arabera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskarazko 2.300 ECTSko eskaintza orokorra lortzea aurreikusi du 2023ko abenduan. Kontuan hartuta emandako ECTSak eskaintakoen % 60 inguru direla —titulazio baterako baino gehiagotarako euskarazko irakaskuntza-talde bateratuak egotearen ondorioz—, hauxe da 2022tik 2024ra bitarteko aurreikuspena:

- 2022: 1.234
- 2023: 1.293
- 2024: 1.351

Bestalde, Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusiak euskarazko unibertsitate-hedapeneko ekintza hauek finantzatzen ditu urtero:

- Hitzarmena Udako Euskal Unibertsitatearekin: Unibertsitate-ikasleentzako euskarazko ikastaroak eta jarduerak finantzatzen dira.

- Nafarroako Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedra: Urtero 15.000 € bideratzen dira katedraren helburuak garatzeko: batetik, euskal gaien inguruko euskarazko eta gaztelaniazko irakaskuntza sustatzea, eta, bestetik, etnologia, historia eta kultura ardatz dituen ikerketa garatzea. Horretaz gainera, unibertsitateaz haraindiko proiektioa du, eta jarduera irekiak eskaintzen ditu publiko orokorrari zuzendurik.

- Jakiunde: Zientzia, Arte eta Letren Akademiak Nafarroako Foru Komunitatean egiten dituen jarduerak eta ekimenak finantzatzen dira; horien artean, Jakin-Mina programa nabarmentzen da, Nafarroako ikastetxeetako DBHko 4. mailako ikasleei zuzendua.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, bestalde, onetsita dauka [Euskarazko Ikasketen 2021-2024 aldirako Plan Gidaria](#), unibertsitatearen plangintza estrategikoaren barruan. Taula honetan ikusten ahal den moduan, euskaraz eskaintzen dira Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Maisu-maistren graduak, eta gainerako graduetan, berriz, euskarazko irakasgaien eskaintza jakintza-adar bereko titulazioen arteko transbertsalitate-printzipioari lotzen zaio gehienbat, horixe baita Europako

Goi Mailako Hezkuntzaren Esparrura egokituriko gradu berrietako lehen sei hilekoen ezaugarri berariazkoa.

Graduko euskarazko kredituen eskaintza Nafarroako Unibertsitate Publikoan (2016-2021)

Centro/Titulación	Curso 2016-17	Curso 2017-18	Curso 2018-19	Curso 2019-20	Curso 2020-21		
	% créditos euskera	% créditos euskera	% créditos euskera	% créditos euskera	% créditos euskera	Total créditos euskera	Total créditos
<b>Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales</b>					<b>54%</b>	<b>258</b>	<b>480</b>
Economía	30%	30%	35%	48%	53%	126	240
Administración y Dirección de Empresas	40%	40%	45%	53%	55%	132	240
<b>Esc. Técnica Superior de Ing. Industrial, Informática y de Telecomunicación</b>					<b>26%</b>	<b>417</b>	<b>1620</b>
Ingeniería Informática	18%	18%	18%	18%	18%	42	240
Ingeniería en Tecnologías Industriales	40%	40%	43%	43%	44%	105	240
Ingeniería en Tecnologías de Telecomunicación	18%	18%	18%	18%	20%	48	240
Ingeniería Eléctrica y Electrónica	28%	28%	30%	30%	30%	72	240
Ingeniería Mecánica	39%	41%	45%	45%	45%	108	240
Ingeniería Biomédica			60%	35%	23%	42	180
Ingeniería en Diseño Mecánico	0%	0%	0%	0%	0%	0	240
<b>Facultad de Ciencias Humanas, Sociales y de la Educación</b>					<b>56%</b>	<b>600</b>	<b>1080</b>
Maestro en Educación Infantil	93%	93%	93%	90%	93%	222	240
Maestro en Educación Primaria	93%	93%	93%	90%	93%	222	240
Sociología Aplicada	23%	25%	25%	25%	25%	60	240
Trabajo Social	28%	30%	30%	30%	30%	72	240
Historia y Patrimonio				0%	20%	24	120
<b>Facultad de Ciencias Jurídicas</b>					<b>13%</b>	<b>60</b>	<b>480</b>
Derecho	10%	13%	15%	23%	18%	42	240
Relaciones Laborales y Recursos Humanos	10%	10%	8%	8%	8%	18	240
<b>Facultad de Ciencias de la Salud</b>					<b>5%</b>	<b>36</b>	<b>720</b>
Enfermería	5%	3%	8%	10%	13%	30	240
Psicología				0%	0%	0	120
Medicina				0%	0%	0	120
Fisioterapia	0%	0%	3%	3%	3%	6	240
<b>Escuela Técnica Superior de Ingeniería Agronómica y Biociencias</b>					<b>12%</b>	<b>126</b>	<b>1020</b>
Ingeniería Agroalimentaria y del Medio Rural	33%	33%	29%	28%	28%	66	240
Innovación de Procesos y Productos Alimentarios	10%	10%	11%	10%	13%	30	240
Ciencias			0%	0%	7%	12	180
Ciencias de Datos			0%	0%	3%	6	180
Bioteología			0%	0%	7%	12	180

La tabla no incluye los programas internacionales y los dobles grados. Fuente: Sección de Análisis y Programación.

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP).

Nafarroako Unibertsitateari dagokionez (pribatua), 50 kreditu eman ziren euskaraz Euskara eta Euskal Kultura Katedraren bidez, baina azkenean desagertu egin zen. Gaur egun, berriro heldu diote katedrari, eta apurka-apurka Euskal Ikasketen Ibilbidea ezartzen ari da Filosofia Fakultatearen barruan.

## Helduen prestakuntza

Helduentzako Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzan, lau modulu eskaintzen dira euskaraz komunikazioaren alorrean, helduentzako Félix Urabayen eta Lekaroz BHIen bidez. Helduentzako gainerako hezkuntza-mailetan (Oinarrizko Prestakuntza, Enplegurako Lanbide Prestakuntza eta Batxilergoa), ez da eskaintzen euskarazko modulurik.

Euskara irakasteari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatean hiru Hizkuntza Eskola Ofizial daude, eta horietan Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko maila guztiak eskaintzen dira euskaraz. Hizkuntza-eskoletako batean urrutiko prestakuntza ematen da, lurralde osoko pertsonak artatzeko. Bestalde, gizarte-ekimeneko euskaltegien sareaz gainera (euskara irakasteko zentroak), Nafarroako Gobernuak badu titulartasun publikoko euskaltegi bat Uharten. Administrazio publikoetako langileek, berriz, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez jasotzen ahal dute euskarazko prestakuntza.

Helduentzako euskara-irakaskuntzako matrikulazio-datuak, 2017-2021

Ikastegia	2017	2018	2019	2020	2021
Euskarabidea	1.589	1.821	1.345	999	1.079
Hizkuntza Eskola Ofizialak	2.686	2.704	2.772	2.883	3.113
Zubiarte euskaltegi publikoa	1.371	1.247	1.399	1.245	1.154
Gizarte-ekimeneko euskaltegiak	1.992	2.022	1.806	1.960	2.130
GUZTIRA	7.638	7.794	7.322	7.087	7.476

Iturria: Euskarabidea.

Azpimarratzekoa da nabarmen handitu dela gizarte-ekimeneko euskaltegienezko dirulaguntzen zenbatekoa, Gobernuak irakaskuntza horiek doan izatea ezarri baitu helburu gisa —datozen urteetan espero da xede hori lortzea—. Hona hemen 2021era arteko finantzaketa areagotu izanaren xehetasuna:

Gizarte-ekimeneko euskaltegiendako dirulaguntzak, 2017-2021

2017	2018	2019	2020	2021
------	------	------	------	------

Laguntzaren zenbatekoa	700.000	700.000	800.000	1.000.000	1.236.000
------------------------	---------	---------	---------	-----------	-----------

Iturria: Euskarabidea.

## Irakasleen prestakuntza

Irakasleen euskarazko hasierako prestakuntza dela eta, arestian adierazi bezala, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Maisu-maistra graduak eskaintzen ditu osorik euskaraz, eta gainerako graduetan zenbait irakasgai eskaintzen dira euskaraz.

Hezkuntza Departamentuak berriazko zentro bat du irakasleei prestakuntza eta aholkularitza emateko; hots, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ), euskara hobetzeko ikastaroak eta irakaskuntzarekin ikusteko duten gaiei buruzkoak antolatzen dituena. Guztiak euskaraz. 6 irakasle aholkularik osatzen dute zentroko plantilla.

<http://eibz.educacion.navarra.es/>

Departamentuak, gainera, Irakasleari Laguntzeko Zentroen sarea dauka Nafarroako zenbait eskualdetan. Zentro horietariko batzuetan euskarazko jarduerak ere egiten dira. 2020-2021 ikasturtetik aurrera, bada irakasleen prestakuntza kudeatzeko plataforma berri bat, irakasteko hizkuntzaren arabera diskriminatzeko aukera ematen duena. Jarraian, Irakasleari Laguntzeko Zentroetan antolatu diren prestakuntza-modalitateei buruzko datuak zehazten dira (egokia iruditu zaigu Hezkuntza Departamentuak antolaturiko prestakuntza-datuak ere gehitzea, barnean harturik programa espezifikoekin edo eskola-sareekin lotutako prestakuntza-jarduerak ere):

Irakasleen prestakuntza, irakasteko hizkuntzaren arabera, 2020-2021 ikasturtea

	Ikasmila		Mintegia		Lantaldea		Jardunaldiak		Hitzaldia		Informazio-saioa		Guztira	
	Gazt	Eus	Gazt	Eus	Gazt	Eus	Gazt	Eus	Gazt	Eus	Gazt	Eus	Gazt	Eus
ILZ														
Lizarra	17		18	1	1		1		2		2		41	1
Lekaroz	8	19	2	5		12						1	10	37
Iruña	199	15	94	10	10	8			1		13	1	317	34
Tafalla	16		29		1								46	
Tutera	36		35		5				2		1		79	
Depart.	181	45	19	2	17	13	3			1	12	13	232	74
Guztira	457	79	197	18	34	33	4		5	1	28	15	725	146

Bestalde, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren ekainaren 23ko 216/2020 Ebazpenak (Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua 2020-2021 ikasturtean arautzeko jarraibideak onesten dituena) jasotzen du ezen ikastetxeek prestakuntza-programa instituzional bat ezarriko dutela ikastetxeko irakasle guztiendako, eta nahitaezko prestakuntzako 35 ordu izanen dituela. Haien barruan, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz eta ikusirik eten egin zela aurrez aurreko hezkuntza-jarduera presentziala 2019-2020 ikasturtea amaitu arte, Hezkuntza Departamentuak 15 orduko prestakuntza-ekintzen plan bat ezarri zuen konpetentzia digitala garatzeko, baita prebentziorako, higienerako eta osasuna sustatzeko ere, etorkizunean hezkuntza-arreta ez-presentzialak optimizatzeko. Irakasle guztiek nahitaez bete beharrekoak izan ziren prestakuntza-ekintza haiek, eta euskaraz zein gaztelaniaz egiteko modua izan zen.

Azkenik, Hezkuntza Departamentuak tutoretzapeko onlineko ikastaroak ere eskaintzen ditu Educalingua plataformaren bidez. Plataforma horretan eskura jarritako tresnari esker, hizkuntza-ezagutzak hobetzen ahalko dituzte aktibo dauden irakasle guztiek, bai eta A1 eta C1 mailetako probak egin ere.

### **Nafarroako Eskola Kontseilua**

Nafarroako Eskola Kontseiluaren urteko txostenak Nafarroako hezkuntza-sistemaren urteko aurrerapenak aztertzen ditu, eta, beste hezkuntza gai batzuen artean, irakaskuntzaren kalitateaz eta euskarazko irakaskuntzan lortutako aurrerapenez arduratzen da. Esteka honetan daude txostenak argitaratuta: <https://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/eu/>

## **4.2. 9. artikulua. Justizia**

Botere Judizialaren arloan, Nafarroako Gobernuaren eskumenak administrazio judizialeko langile laguntzaileei mugatzen zaizkie, nahiz eta izan baden lankidetzaren harremana Gobernu Zentralarekin. Izaniko aurrerapenen artean, nabarmentzekoa da Nafarroako Foru Komunitatea buru-belarri ari dela lanean Justizia Zerbitzu Publikoa antolatzeko eredu berri bat ezartzeko Programaren barruko definizio-lanetan. Horrek aldaketa estruktural erabatekoa ekarriko du, Justizia Administrazioaren egungo antolamenduaren aldean. Horregatik guztiagatik, euskara-eskakizuna duten plaza-kopuru jakin bat sortuko da bai Iruñeko barruti judizialeko beste unitate batzuetan, bai Nafarroako gainerako barruti judizialean (Agoitzen, Lizarran, Tafallan eta Tuteran), betiere haietako bakoitzeko biztanleria-bolumenaren arabera.

Programa horri erantzuteko eta onetsitako erreferentziazko eredu horretan oinarrituta, Nafarroako Foru Komunitateak euskara-eskakizuna duten lanpostuak ezarriko ditu, batetik, Iruñeko barruti judizialeko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra ezartzeko proiektuan jada planteatutako moduan,



baina, horretaz gainera, egun Nafarroako Justizia Administrazioiko sindikatuekin negoziazio-prozesuan ari da, Foru Komunitateko gainerako barruti judizialean ere (Agoitz, Lizarra, Tafalla eta Tuter) hizkuntza-eskakizun bera duten plaza-kopuru jakin bat aurreikusi ahal izateko, haietako bakoitzeko biztanleria-bolumena aintzakotzat harturik.

Justizia Administrazioa euskaraz jo ahal izatea indarrean dagoen araudiak babestutako hizkuntza-eskubide bat da. Erabiltzaileak aukeratuko du administrazio horrekin euskaraz ala gaztelaniaz egingen duen, legeak koofizialtasuna eskaintzen baitio euskarari. Gaztelaniaz bestelako hizkuntza ez-ofizialen kasuan ez bezala, ofizialtasunak eskatzen du administrazio publikoek neurriak hartu behar dituztela erabiltzaileei bermatzeko, modu progresiboan, aukeratzen duten hizkuntza ofizialean arreta emanen zaiela. Horretarako, aldi berean, beharrezkoa da arreta hori emateko ardura duten zerbitzuek —hala nola hemen arautzen denak— langile gaituak izatea bi hizkuntzetan aritzeko.

Gainera, Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor horren jardueretan euskararen erabilera sustatzeko, Zerbitzu Erkideak bi hizkuntza koofizialean eskaintzea erraztuko duten ekimenak bultzatuko dira. Horretarako, euskara ahoz eta idatziz jakin beharko da, eta behar bezala egiaztatu beharko da C1 mailako ziurtagiriaren bidez edo gaian eskumena duen organoak emandako titulu baliokideen bidez. Horrekin batera, hautagaiek beharrezko prestakuntza jasoko dute arlo guztietan.

Profil horiek justifikatzeko, nabarmendu dugu Iruñeko Zerbitzu Erkidean hizkuntza koofizialen erabilera aurreikusita dagoela jada Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 4. eta 5. artikuluetan. Izan ere, artikuluen arabera, “Indarreko legeriaren arabera, eta foru lege honetan ezartzen diren hizkuntza eskubideetan babestuak izateko, herritarrek epaile eta auzitegietara jo dezakete”. Lege horrek, orobat, eremu misto bat ezartzen du Nafarroarako, eta bertan dago Iruña. Era berean, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 266/2019 Foru Dekretuaren 15.j artikuluan, berezko funtzio gisa biltzen da “Justizia Administrazioaren erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko behar diren neurriak bultzatzea, euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasuna arautzen duen araudiaren arabera”.

Ildo horretatik, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 530. artikulua dioenez, “Eskumenak berenganatuak dituzten autonomia erkidegoetako lanpostuetarako deialdietan, erkidegoak berezko hizkuntza ofiziala baldin badu, merezimenduztat hartuko da hizkuntza hori jakitea, ahoz eta idatziz. Zenbait postutan, sartzeko ezinbesteko betekizuntzat hartzen ahalko da hori, bete beharreko eginkizunek hala eskatzen dutenean eta lanpostu-zerrendetan hala ezarrita dagoenean”.

Hala eta guztiz ere, nabarmentzekoak dira Nafarroako Justizia Administrazioak emandako zenbait epai; izan ere, arauaren interpretazio murriztailea aplikatuz, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuneko aginduen aurkako argudioak erabiltzen dira. Hona hemen adibide batzuk:

- [37/2017 Epaia](#), 2017ko otsailaren 21ekoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiarena. Gaia: Iruñeko Udalaren haur eskolak.

- [216-217-218/2019](#) Epaiak, 2019ko irailaren 27koak, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emanak. Gaia: 103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan. Indargabetutako artikulua edo puntuak:

- 20. artikulua. *Herritarrekiko harremanak.*

1. *Herritarrei oro har igorritako jakinarazpenak eta komunikazioak ele biz idatziko dira.*

*Pertsona fisikoek edo juridikoek euskaraz hasitako espediente administratiboek dagokienez, espediente horietatik eratorritako komunikazioak ele biz igorriko zaizkie interesdunei.*

2. *Herritar ororendako diren inprimakiak eta idazki ofizialak ele biz idatziko dira.*

- 21. artikulua. *Irudia, oharrak eta argitalpenak.*

2. *Zerbitzu zentraletako bulego eta egoitzetako errotuluak, materialetako, uniformeetako eta ibilgailuetako errotuluak, eta inprimaki eta agiritako izenburuak edo idazpuruak, zigilu ofizialak eta identifikaziorako eta seinaleztapenerako bestelako edozein elementu ele biz eginen dira.*

3. *Zerbitzu zentralek herritar guztiei zuzendutako xedapenak, oharrak, informazio-liburuxkak, kanpainetako material grafikoa, argitalpen dibulгатiboak, mota orotako iragarkiak eta publizitatea edo antzeko beste idazkiak ele biz idatziko dira.*

4. *Nafarroako Foru Komunitateko errepide sareko bide-seinaleetako informazio-elementuak, titulartasun publikoak direnean, ele biz idatziko dira.*

- 31. artikulua. *Merezimendu moduan baloratzea (eremu mistoa)*

1. *Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio unitate organikoetako postuetan, postu horiek eremu mistokoak badira eta sarbidea oposizio-lehiaketa bidez egin eta ele biko lanpostutzat zehaztu gabekoak direnetan, euskara merezimendu moduan baloratuko da eta balorazio hori % 7koa izanen da, merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioari dagokionez, eta % 6koa, merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioari dagokionez.*

2. *Eremu mistoan dauden Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio unitate organikoetako zenbait lanpostuk herritarrekin duten arreta- edo tratu-maila kontuan hartuta, horietarako sarbidea oposizio-lehiaketa bidez egiten bada eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren alde aurretiko justifikazio-txostena izanik, haren baloraziorako esleitutako ehunekoa % 14 bitartekoa izan daiteke, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez, eta, merezimendu lehiaketa bidez hornitutako lanpostuetan, berriz, % 12 bitartekoa, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez.*

- 35. artikulua. *Merezimendu moduan baloratzea (eremu ez-euskalduna)*

1. Eremu ez-euskaldunean dauden Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unitate organikoetako lanpostuetan –lanpostu horiek ez dira ele bikotzat hartzen eta haietan oposizio-lehiaketa bidez sartzen da–, euskara merezimendu moduan baloratuko da eta balorazio hori % 7 bitartekoa izan daiteke, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez, eta % 6 bitartekoa, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez; Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren justifikazio-txostena beharko da aurretik.

- 39. artikulua. *Merezimendu modura baloratzea* (zerbitzu zentralak: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuetatik, herritar guztiendako arreta ematen dutenak, non kokaturik dauden kontuan hartu gabe).

1. *Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu zentraletako lanpostuetan –lanpostu horiek ez dira ele bikotzat hartzen eta haietan oposizio-lehiaketa bidez sartzen da–, euskara merezimendu moduan baloratuko da eta balorazio hori % 7koa izanen da, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez, eta % 6koa, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez.*

2. *Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko zerbitzu zentraletako zenbait lanpostuk herritarrekin duten arreta- edo tratu-maila kontuan hartuta, horietarako sarbidea oposizio-lehiaketa bidez egiten bada eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren alde aurretiko justifikazio-txostena izanik, haren baloraziorako esleitutako ehuneko % 14 bitartekoa izan daiteke, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez, eta, merezimendu lehiaketa bidez hornitutako lanpostuetan, berriz, % 12 bitartekoa, merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez.*

Eremu ez-euskaldunean euskara merezimendu gisa baloratzeari dagokionez, aipatzekoa da Nafarroako Kontseiluak emaniko [7/2020 Irizpena](#), zeinetik ondorioztatzen baita arauak ez duela eragozten eremu ez-euskaldunean euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzeari buruzko erregelamendu-garapena egitea, aipatutako irizpenean adierazitakoa aplikatuz.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak barnean hartzen du Nafarroako Administrazio Auzitegia, zeinak doako zerbitzua eskaintzen baitie herritarrei administrazioarekiko auzien gaietan, Nafarroako toki-entitateetan, gora jotzeko errekursoak izapidetzearen bidez.

Kasu honetan, Nafarroako Administrazio Auzitegiak txosten ugari egin ditu toki-mailako hizkuntza-politikaren arloan, eta hizpide izan ditu plantilla organikoetako hizkuntza-eskakizunak edo udaletako euskara-ordenantzak; kasu batzuetan, ezetsi egin ditu aurkeztutako errekursoak, eta beste batzuetan, berriz, baietsi, Gutuneko manuekin bat ez datozen argudioekin. Esteka honetan kontsultatu daitezke Nafarroako Administrazio Auzitegiak hizkuntzaren arloan argitaratutako epaiak (kontuan hartuta ez direla guztiak, bakan batzuk baizik): [http://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Presidencia+justicia+e+interior/Organigrama/Estructura+Organica/TAN/Buscador+de+resoluciones/Buscador+Materias.htm](http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Presidencia+justicia+e+interior/Organigrama/Estructura+Organica/TAN/Buscador+de+resoluciones/Buscador+Materias.htm)

Azkenik, Euskararen Foru Legearen 17. artikulua hau ezartzen du:

- Herritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Nafarroako Administrazio Publikoari zuzentzeko.

Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatu Administrazioek honako hau egin dezakete:

- Urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zehaztea zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea.
- Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskara jakitea merezimendu moduan baloratzea.

“Egin dezakete” esamoldearen zehaztasun faltak askotariko interpretazioak sorrarazi ditu, eta, ildo horretan, ahal hori administrazio publikoetara mugatzen duten epaiak eman dira. Kontuan izan behar dugu Aritu Batzordeak 2019an gomendatu zuela euskararen erabilera areagotzea hizkuntza koofiziala ez den eremuetan. Horrenbestez, beharrezkoa da azterketa zehatz bat egitea, administrazio publikoari eta, bereziki, toki-erakundeei segurtasun juridiko handiagoa bermatuko dien araudi bat ezartzeko.

### 4.3. 10. artikulua. Administrazioako agintaritzak eta zerbitzu publikoak

#### Nafarroako Gobernua

Nafarroako Gobernuak herritarrei euskaraz eman beharreko arretari eta zerbitzuei dagokienez, ari dira lortzen egoerari buruzko datuak 103/2017 Foru Dekretuaren 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-plangintzaren bitartez. Agerian geratzen ari da gabezia nabarmenak daudela alderdi horri dagokionez. Foru Administrazioak bi hizkuntzetan jarduteko ezinbesteko baldintza da horretarako beharrezko euskara-maila duten langileak izatea, eta, taula honetan ikusten ahal dugunez, arlo horretako giza baliabideak mugatuak baino mugatuagoak dira (Hezkuntzan izan ezik, eta kontuan hartuta aitortu gabeko euskara-maila duten langile gehiago daudela):

Nafarroako Foru Administrazioako lanpostu elebidunen egungo egoera

Departamentua		Plazak	Plaza elebidunak	Plaza elebidunen ehunekoa
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Dptua.		2331	57	% 2,45
Herritarrekiko Harremanak		74	58	% 78,38
Hezkuntza	Irakaslerik gabe	847	143	% 16,88
	Irakasleekin	8028	2298	% 28,64
Osasuna		8953	174	+% 1,94
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala		123	0	% 0,00
Kultura eta Kirola		284	10	% 3,52

Lurralde Antolamendua, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak	56	0	% 0,00
Landa Garapena eta Ingurumena	439	10	% 2,28
Ekonomia eta Ogasuna	427	12	% 2,81
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	99	0	% 0,00
Eskubide Sozialak	820	17	% 2,07
Lurralde Kohesioa	171	0	% 0,00
Migrazio Politikak eta Justizia	78	0	% 0,00
Guztira (irakaslerik gabe)	14702	481	% 3,27
Guztira	21883	2636	% 12,05

Iturria: Euskarabidea.

Hizkuntza-plangintzan hizkuntza-eskakizunak esleitzea proposatu bada ere, deigarria da badirela bost departamentu plaza elebidunik gabe.

Gobernuak herritarrei ematen dizkien zerbitzuei dagokienez, eta kontuan hartuta gaur egun izapide gehienak modu telematikoan egiten direla, egindako diagnostikoen bidez antzeman da 2019an Gobernuaren 72 webgune nagusietatik lau bakarrik zeudela eskuragarri bi hizkuntzetan. Bestela esanda, webguneen % 94 gaztelaniaz bakarrik kontsultatzen ahal ziren. Gauza bera gertatzen zen herritarrek Gobernuarekin komunikazio ofiziala izatea eskatzen duten tramite elektronikoekin, izapideon % 17 soilik baitaude eskura bi hizkuntzetan, informazio eguneratuarekin. Nafarroako Gobernuaren sare sozial nagusiek egoera hobea dute: % 55era iristen dira eduki elebidunak.

Abiapuntuko egoera horrekin, departamentu bakoitzak onetsiriko Hizkuntza Planak funtsezko tresna dira herritarrei euskaraz eta gaztelaniaz ematen zaien arreta eta zerbitzuak hobetzeko bidean aurrera egiteko.

Hizkuntza-plangintza aplikatzearen ondorioetako bat zera izan da: ugaritu egin direla Nafarroako Gobernuko unitateetatik Euskarabideko Itzulpen Unitateari eginiko itzulpen-eskaerak. Ia bikoiztu egin dira, taula honetako datuetan ikusten ahal denez:

Euskarabideak eginiko itzulpenen bolumena, 2017-2021

Urtea	Itzultako hitz-kopurua
2017	2.815.201
2018	2.972.478
2019	2.212.128

2020	3.330.080
2021	5.743.482

Iturria: Euskarabidea.

Nafarroako euskarazko toponimoen forma zuzenen erabilerari dagokionez (Euskarabideak koordinatzen du lan hori), *Nafarroako toponimia erabiltzeko oinarrizko jarraibide teknikoak* izeneko eskuliburua argitaratu zen 2019an. 2020an, berriz, [web-bisore](#) bat aurkeztu zen Nafarroako Toponimia Ofizialaren datu-basea kontsultatzeko. Nafarroako toponimiaren zati handi baten jatorria euskara denez, bi tresna horiek interesgarriak dira euskararekin lotutako kontsultak eta dibulgazio-lanak egiteko. Ildo horretan, adierazi behar da bisorea garatzeko kontuan hartu zela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007/2/EE Zuzentaraua, 2007ko martxoaren 14koa, Europako Erkidegoan informazio espazialeko azpiegitura ezartzen duena (Inspire).

### **Toki-administrazioa**

1996az geroztik, toki-entitateak ordenantzak onesten joan dira, euskararen erabilera eta sustapena normalizatzeko udaletan eta udal-elkarteetan. Haien egitura aski estandarra da eta gai hauek jorratzen ditu:

- Administrazioen arteko harremanak.
- Herritarren eskubideak.
- Udalaren kanpo-irudia.
- Udal-langileak eta barne-funtzionamendua.
- Kontratazioak.
- Euskararen sustapena.
- Toponimia.
- Haur-eskola eta musika-eskola.
- Dirulaguntzak.

Eremu euskaldunean, udalerrri nagusiek behintzat onetsi dituzte euskararen erabilera eta sustapena arautzeko udal-ordenantzak. Gainera, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide dira Nafarroako 14 udalerrri. UEMAK biztanleen % 70 behintzat euskaldunak diren udalerrriak elkartzen ditu. Elkarteko kideak dira: Araitz, Arantza, Arbizu, Areso, Basaburua, Baztan, Bera, Etxalar, Etxarri Aranatz, Goizueta, Igantzi, Larraun, Leitza eta Lesaka.

Mankomunitatearen xedea da herritarraren gizarte-bizitza, publikoa nahiz pribatua, euskaraz garatu ahal izatea; biztanleriaren gehiengoa euskalduna duten herrien udalek elkarri lagundu ahal

izatea euskararen erabileraren eremu bat osatzeko, eta haien garapen sozioekonomiko eta soziokulturala bulkatzea.

Eremu mistoko toki-entitate nagusiak ere ahaleginak egiten ari dira Euskararen Foru Legea errespetatzeko herritarrei arreta egitean, eta euskara babesteko eta sustatzeko ordenantzak onetsi dituzte beren ordenamendu juridikoan eta hizkuntza-eskakizunak gehitu dituzte jendeari arreta emateko lanpostuetan. Eremu mistoan 24 ordenantza daude —biztanle gehien dituzten udalerriek onetsita dauzkate—. Eremu ez-euskaldunean ere, hiru udalerritan onetsi dituzte euskararen erabilerari loturiko ordenantzak azken urteetan: Tafalla, Metauten eta Larraga.

Nafarroan 28 euskara-zerbitzu daude, eta toki-entitateetan euskara bulkatzea da haien eginkizuna. Zerbitzu horietako batzuk udalarenak bakarrik dira, eta beste batzuk, berriz, eskualdeka mankomunatuak. Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ematen ditu erakunde horietako euskara teknikariak kontratatatzeko.

Horretaz gainera, Nafarroako Gobernuak diruz lagunduta, jarduera soziokultural ugari egiten dituzte euskara bulkatzeko, batzuetan modu indibidualean eta beste batzuetan, berriz, udal gehiagorekin elkarlanean. 50 bat udalek eskatzen dituzte laguntza ekonomiko horiek urtero, euskara sustatzeko programazioa finantzatzeko. Hona hemen programa horrek aurrekontuetan izan duen bilakaera:

Euskara sustatzeko toki-erakundeentzako laguntzen bilakaera, 2016-2021

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Laguntzaren zenbatekoa	300.000	650.000	700.000	750.000	780.000	819.316

Iturria: Euskarabidea.

## **Estatuaren Administrazioa**

Espainiako Gobernuko ministerioen webguneek nabarmen egin dute aurrera hizkuntza koofizialen presentzia bermatzeko. Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzaren [webguneak](#), ordea, ez ditu argitaratzen edukiak bi hizkuntzetan: hizkuntza hautatzeko aukera izan arren, menuen izenburuak baino ez daude itzulita. Ordezkaritzak jakinarazi du baduela euskarazko izulpen-talde bat, eta oraingoz ez dutela hizkuntza-plangintzarik.

### **4.4. 11. artikulua. Hedabideak**

Nafarroako Foru Komunitateak ez dauka zerbitzu publikoa eskaintzeko irrati- eta telebista-espaziorik erreserbatuta, baina badira programazioa osorik euskaraz ematen duten irrati-kateak, dela irrati komertzialaren lizentziarekin dihardutenak, dela udal-irradiaren lizentziarekin ari direnak. Horretaz gainera, badira programazioa osorik euskaraz eskaintzen duten tokiko hiru telebista digital, Euskal Autonomia Erkidegoko ETB1 eta ETB3 (haurrentzako edukia) telebista-kate publikoaren euskarazko emisioez gain.

Euskarabideak laguntza-deialdi bat egiten du urtero prentsa idatzian, irratietan eta onlineko komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko. 2021ean 920.912 eurokoa izan zen laguntza-deialdi hori, eta modalitate hauetan banatu zen (parentesi artean zehazten da 2021ean modalitate bakoitzeko enpresa adjudikaziodunen kopurua):

- Euskara hutsezko eguneroko prentsa (egunkariak) (1).
- Euskara erabiltzen duen eguneroko prentsa (egunkariak) (1).
- Nafarroan zabalkundea duten euskara hutsezko aldizkariak (9).
- Euskara erabiltzen duten aldizkariak, hizkuntza-eremu mistoan eta/edo ez-euskaldunetan zabalkundea dutenak (3).
- Euskara hutsezko irratia (7).
- Euskara erabiltzen duten irratia, eremu mistokoak, ez-euskaldunekoak edo bietakoak (1).
- Euskarazko hedabideak, edo euskara erabiltzen dutenak, Nafarroan zabalkundea duen beste hedabideren baten onlineko euskarria direnak (7).
- Euskara hutsean eta online bakarrik diharduten hedabideak (2).
- Online bakarrik jardun eta euskara erabiltzen duten komunikabideak (1).

Euskara sustatzeko komunikabideentzako laguntzen bilakaera, 2016-2021

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Laguntzaren zenbatekoa	290.000	580.000	630.000	680.000	780.000	920.912

Iturria: Euskarabidea.

Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak laguntza-deialdiak plazaratzen ditu Nafarroako lurreko telebista digitaleko (LTD) lizentzia pribatuen titularrek ikus-entzunezko edukia ekoitz ditzaten, eta 2021ean 450.000 euro eman zituen laguntzatan. Klausuletako batek euskararen erabilera aipatzen du:



- Autonomia erkidegoetako telebista operadoreen kasuan, eta, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1988 Foru Legeak ezarritako zonifikazioarekin bat, eremu euskaldunean edo mistoan gutxienez udalerrri bat daukaten barrutietako operadore lokalen kasuan, euskarazko programa bat ematea gutxienez ere astean behin bere lizentziako LTDko kanal nagusian, lehen emanaldian edo lehendik gaztelaniaz emandako programak euskaraz emanez (uztailean eta abuztuan salbu).

Euskarazko irrati- eta telebista-zerbitzu publikoak kontsumitu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko irrati eta telebista sintonizatu behar dira, Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaz hitzarmenei esker. ETB1 telebista-kanalaren kasuan, Nafarroa osoan ikus daiteke, baina hurrei zuzendutako ETB3 kanala ez da ikusten ahal Nafarroako zenbait ingurutan (soziolinguistikoki euskaldunenetan, kasualitatez), nahiz eta baden hori konpontzeko konpromiso politikoa.

Estatuko Radio Televisión Española (RTVE) kate publikoari dagokionez, lurraldeko zentroak albiste-laburpen bat eskaintzen du egunero, "Arin-arin" izenekoa, eta bizpahiru minutu irauten du. Irratiek ez dute euskarazko programaziorik ematen. Nafarroan, estatuko orotariko telebista-kate pribatuek ez dute emititzen euskarazko programaziorik.

Euskadi Irratia Eusko Jaurlaritzaren irrati publikoa da, euskaraz emititzen du eta Nafarroako Foru Komunitate osoan entzuten da. Bestalde, badira euskarazko irrati komertzialak Nafarroako hainbat eremutan, hala nola Euskalerrria Irratia Iruñerrian, Xorroxin Irratia Nafarroako iparraldeko ibarretan (Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka, Mendialdea eta Xareta), bai eta udal-titulartasuneko euskarazko beste lau tokiko irrati ere eremu euskalduneko toki jakin batzuetan (tokiko programazioak ematen dituzte eremu mugatuagoan).

Prentsa idatziari dagokionez, beste hedabide batzuetan asteko gehigarriak edo euskarazko atalak badiren arren, *Berria* da euskaraz argitaratzen den egunkari orokor bakarra. Nafarroan argitaratzen ez bada ere, badu korrespontsalia bat Iruñean, Nafarroaren berri ematen du eta Nafarroako Foru Komunitate osoan banatzen da. Astean behin, eskualde mailako orria argitaratzen du, horietariko bat [Nafarroari eskainia](#), eta egunerokotasuneko gaiak, albisteak, elkarrizketak, iritzi-artikuluak eta agenda.

Tokian-tokian, zenbait udalek, euskara-zerbitzuen bitartez, gaztelaniazko aldizkari bat argitaratzen dute, euskarazko albisteak dituen, *Ze berri?* izenekoa; doan banatzen da, eta haren helburua euskarari prestigioa ematea da, eta euskal hizkuntzaren inguruan dauden ekintza eta gertakarien berri ematea.

## **4.5. 12. artikulua. Kultura-jarduerak eta -baliabideak**

[Nafarroako 2017-2023 aldirako Kultura Plan Estrategikoak](#) printzipio gidari hauek ditu, bestek beste:

Euskara: Beharrezkoa da euskarari eta kultura-adierazpenei laguntzea, aurrez izaniko abandonuak eragin duen arrakala gainditzeko. Euskarari lotutako sorkuntza artistiko berritzailea ere bultzatzea, bai eta hizkuntza horretan ikasteko eta kritikatzeko lana ere.

Bestalde, 2019-2023 legegintzaldirako Gobernu Programari buruzko akordioan, kulturari buruzko atalaren barruan, modu transbertsalean aipatzen da euskara:

9. Kultura-adierazpenetan euskara sostengatzea. Euskarari lotutako sorkuntza artistiko berritzailea bultzatzea, baita prestakuntza-, ikerketa-, ekoizpen-, hedapen- eta bitartekaritza-lana ere.

Ildo beretik, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako [zerbitzu-kartan](#) hauxe aipatzen da funtsezko helburu gisa:

- Gure hizkuntza-ondarea errespetatzea. Euskara geure kulturaren balio bereizgarri bat da; euskaraz egindako kultura baloratzen aurrera egitea, gure lurraren eta gure ohituren elementu aglutinatzaile modura.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Kulturaren Atari Digitala kaleratu zuen 2020an. Han, zerbitzu guztiak bateratzen ditu eta euskaraz zein gaztelaniaz kontsultatzen ahal da.

Ataria [portalcultura.navarra.es](http://portalcultura.navarra.es) helbidean dago, eta Foru Administrazioiko informazioa jasotzen du. Hasiera-orrian hiru esteka daude: Nafarroako Liburutegi Digitalera (BINADI), Nafarroako Museora eta Artxibo Irekira. Gainera, erabiltzaileei bilaketak egitea ahalbidetzen die, baita "Nabarmendutako bildumak" izeneko apartatu batean sartzeko ere; han, askotariko monografikoak daude, hala nola arteari, kirolari, arkitekturari, numismatikari eta musikari buruzkoa, bai eta eskuizkribuak ere.

Dokumentuetan sartzean, fitxa bat ageri da dagozkien datuen laburpenarekin, eta loturiko irudiarekin (baldin badu), baita jatorrizko datu-iturrian dauden objektu digitalerako estekak ere. Gainera, erlazionatutako edukiei buruzko apartatu bat dago fitxan, antzeko aukeren iradokizunekin. Bilaketa-etiketak lau hizkuntzatan daude: gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez.

Museoek, liburutegiek eta artxiboek emandako zerbitzuei dagokienez, oro har bermatzen da elebitasuna, eta euskara babestearen aldeko ekintza positiboak egiten dira, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko [memorian](#) ikusten ahal den bezala, konparazio batera.

Nafarroako Museoan, plano erako gida biltzen duen orri bat jartzen da doan bisitarien eskura, bai eta sei maisulanen aukeraketa bat ere aretoak bisitatzeko (bata gaztelaniaz eta euskaraz, eta bestea ingelesez eta frantsesez). Areto berrituetan, bi hizkuntzetan daude testuak, gaztelaniaz eta euskaraz. Bestalde, aldi baterako erakusketa guztiek gaztelaniaz eta euskaraz izaten dituzte aretoko testuak eta liburuxka (batzuetan, QR kodearekin ordeztu izan dute), eta euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dira bisita gidatu guztiak.

Nafarroako Liburutegi Nagusiak euskal literaturaren katalogo zabala du, eta tituluak hizkuntzaren arabera bilatzeko aukera eskaintzen du. Horretaz gainera, Asnabi liburutegi publikoen sareak euskara sustatzeko jarduerak egiten ditu Nafarroa osoko udalerrietan. Bada euskarari buruzko liburutegi espezializatu bat ere, Liburutegi Publikoen Sarean txertatua eta Euskarabidearen egoitzan kokatua. Bestalde, Ondare Historikoaren Zerbitzuak buletin bat argitaratzen du hilero, eta euskaraz eta gaztelaniaz ezagutarazten ditu zerbitzuak edo bere piezei buruzko informazio interesgarriak.

## **Toki-erakundeak**

4.3 puntuan adierazi bezala, mankomunitate eta udaletako euskara-zerbitzuak bultzatzaile garrantzitsuak dira hizkuntza-, kultura-, kirol- eta gazteria-arloetako jarduerak egiteko, administrazio-maila horrek jarduten baitu herritarrengandik gertuen. Euskara-teknikariek kultura-, kirol- eta gazteria-teknikariek koordinaturik lan egin ohi dute halako figurak dituzten toki-entitateetan. Biztanleria handiagoa duten mankomunitate edo udalerrietan teknikari bat izan ohi da alor horietako bakoitzerako (kultura, kirola eta gazteria). Entitate txikietan teknikari bakarra aritzen da hiru alorretan.

Euskara-zerbitzu horiek sarean egiten dute lan (NUETS, Nafarroako Udal Euskara Teknikarien Sarean, hain zuzen), eta, 2017. urtearen amaieran, euskara-zerbitzua duten Nafarroako toki-erakunde guztiek (28 guztira) parte hartu zuten [ERA](#) plataforma digitala abiarazten. Plataforma digital horrek bateratu eta erraztu egiten du 0-12 urte bitarteko haurrei euskaraz eskaintzen zaizkien kultura- eta aisialdi-baliabideak eskuratzeko modua. Proiektu horren barruan, zenbait tailer egin dira online, etxean euskara kudeatzen laguntzeko, batez ere gurasoek euskaraz ez dakiten kasuekin pentsaturik. Era berean, sareak urtero bidaltzen dizkie euskarazko kultur eskaintzaren gidak seme-alabak eskolatzen hasten diren familiei.

## **4.6. 13. artikulua. Ekonomia- eta gizarte-bizitza**

Kontratu Publikoei buruzko [apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak](#) xedapen gehigarri hau biltzen zuen:

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Jendeari erantzuteko zerbitzuetan euskararen presentzia sustatzea.

Kontratua betetzeak jendeari erantzuteko zerbitzu bat ematera behartzen duenean, enpresa azpikontratatuak euskara plan bat prestatuko dute, jendeari erantzuteko lanpostuetan diharduten pertsonak hizkuntza horretan prestatu ahal izateko.

Aurrerapauso handia zen xedapen hori Gutuneko manuei zegokienez, baina indargabetu egin zuen Nafarroako Parlamentuak onetsitako 2/2018 Foru Legea aldatzen duen urriaren 21eko 17/2021 Foru Legeak.

Bestalde, 2018. urteaz geroztik eta plangintza estrategikoan ezarritakoari dagokionez, Euskarabideak dirulaguntza-deialdi bat bultzatu du euskara sustatzeko planak edo ekintzak garatzen dituzten Nafarroako enpresentzat. 2021ean 154.000 euro bideratu ziren, modalitate hauen arabera:

1. 2021ean lehen euskara plana egitea, Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) oinarrituta.
2. Baldin eta aurretik euskara plan bat bada, diruz lagunduko da hura betetzeko 2021erako zehaztutako ekintzak kudeatzea, EME izeneko erreferentziatzat hartuta betiere.
3. EMEn proposatutakoetatik beharrezko jotzen diren ekintza solteak, entitatean edo lantokian euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko direnak.
4. Helburu hauetarako inbertsioak:
  - Atariak, webguneak eta software aplikazioak euskaraz sortzeko inbertsioak, komunikazioaren teknologietan euskara sustatu eta/edo zabaltzeko xedea dutenak.
  - Lehendik dauden webgune eta aplikazioen eboluzioa, aldaketak, hobekuntzak eta aldakuntzak: zerbitzu, funtzionaltasun eta eduki berriak ematea; diseinua, irisgarritasuna edo egokitzapena hobetzea gailu mugikorretan erabiltzeko.
  - Webguneak eta software aplikazioak euskarara itzultzeko lanak.

Lan-ildo beretik, Euskarabideak enpresen arteko topaketa antolatu du [Euskara Langai](#) hizkuntza-jardunbide onak partekatzeko. Topagune izateaz gain, oinarri gisa ere balio du euskara garatzeko zuzeneko foro bat sortzeko Nafarroako administrazio publikoaren eta enpresa-sarearen artean. Horretaz gainera, [Sarean Euskaraz](#) programa zabandu eta sendotu da, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) esparruan euskararen erabilera sustatzeko eta euskarazko kultura digitala sustatzeko. Hala, euskara eta teknologia horiek uztartzean sortzen ahal diren aukera profesionalak erakusten dizkie gazteei. Sarean Euskaraz programa 2017an sortu zen, eta DBHko 4. mailako eta Batxilergoko mila ikaslek baino gehiagok parte hartzen dute urtero. Europako Kontseiluak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna aplikatzearekin lotutako jardunbide egokitzaileak jo zuen 2019an.

Euskarabideak, gainera, bultzatzen ditu irabazi asmorik gabeko gizarte-erakundeentzako eta eremu sozioekonomikorako laguntza ekonomikoak ere. Hurrengo taulan ikusten ahal da laguntza horien aurrekontu-bilakaera:

Esparru ekonomiko eta sozialerako laguntzen bilakaera, 2016-2021

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Irabazi-asmorik gabeko entitateentzako laguntzak	110.000	250.000	250.000	250.000	290.000	390.000
Enpresentzako laguntzak	-	60.000	80.000	80.000	100.000	154.000

Iturria: Euskarabidea.

Halaber, lankidetzaz hitzarmenak sinatu dira gazteen artean aisialdian euskararen erabilera sustatzen duten erakundeekin, hala nola EuskarAbentura elkartearekin (oinezko espedizioak antolatzen dituzte, hainbat udalerritako gazteen artean) eta eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz antolatzen dituen Dindaia fundazioarekin.

Azkenik, [Euskaraldia](#) izeneko ariketa soziala egin da 2018az geroztik, mugatua denboran eta bi urtean behin, euskararen erabilera sustatzeko eta euskal hiztunen arteko ahozko elkarrekintzak errazten dituzten identifikatzaile pertsonalekin. Ekimen horren emaitzek erakutsi dute euskararen erabilerak gora egin duela etengabe denboran zehar, eta Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatu du sustatzaileekin. Zehazki, azken edizioan 17.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten Nafarroan.

#### 4.7. 14. artikulua. Mugaz haraindiko trukeak

Mugaz haraindiko bi programa daude hezkuntzarako eta aisiarako: Luzaideko eta Arnegiko mugaz haraindiko hezkuntza-proiektua eta aisialdiko ekintzetarako trukaketak egiteko aukera, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko berriazko lankidetzaz hitzarmenaren babesean.

Gainera, Nafarroako Foru Komunitateak bat egin du Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdea Lurralde Lankidetzarako Europako Elkartearekin, eta, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea eratu denez geroztik, mugaz haraindiko lankidetzaz programa eta proiektuak egiten

ahal dira zenbait arlotan, proiektu- eta laguntza-deialdien bitartez. Diruz lagundutako proiektu gehienetan, euskara mugaz haraindiko elkarreraginerako elementua da.

### **Luzaideko eta Arnegiko hezkuntza-proiektua**

Luzaideko ikastetxe publikoak 14 ikasle ditu (5 Haur Hezkuntzakoak eta 9 Lehen Hezkuntzakoak) eta hezkuntza programa eta ikasgelak partekatzen ditu Arnegiko eskolarekin (9 eta 14), Nafarroa Beherean, mugaz haraindiko proiektu baten barnean, zeinaren oinarria baita, besteak beste, hiru hizkuntza ofizialetan murgiltzea, hau da, gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez. Euskara da ikasle guztien hizkuntza komuna.

Lankidetzeta-sistema berri samarra da, Luzaideren eta Arnegiren artean abiarazia: landa-eskolaren muinari eutsirik, aurre egin nahi dio biztanle-galerari, eta, horretarako, indartu egiten ditu gizarte-eta kultura-harremanak eta optimizatu egiten du irakaskuntzaren kalitatea, hizkuntzen aldeko apustu arrazional bat eta mailen banaketa orekatuagoa abiapuntu harturik.

Formula misto horren arabera, Luzaideko Lehen Hezkuntzako ikasleak Arnegira joaten dira astean lau arratsaldez, eta Nafarroako Gobernuak ordaintzen du garraioaren kostua. Arnegiko Haur Hezkuntzako ikasleak, berriz, astean bost goizez joaten dira Luzaidera, eta orduan Frantziako administrazioak hartzen du bere gain kostua. Batean nahiz bestean, bere ikastetxeko jantokira joaten da ikasle bakoitza. Ekimen horrek familien babesa du, bai eta jarraitzeko konpromisoa ere inplikaturiko alderdien aldetik.